



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko urtarrilaren 26a

8. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, EmanZipa eta DaVid programei buruzkoa. María Aranzazu Biurrin Urpegui andreak egin du (3. or.).
- Galdera, txerto-hornikuntzaren atzerapenak txertaketa-kanpainan izanen duen eraginari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (4. or.).
- Galdera, trafikoaren arloko eskumena osorik Nafarroari transferitzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Radar Covid aplikazioari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroan autokarabana-turismoa bultzatzeari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (5. or.).
- Galdera, 1978tik aurrera Nafarroako herritarrek pairatutako torturei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko itunpeko zentroen V. hitzarmenari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, “Minority SafePack-miloi bat sinadura Europako dibertsitatearen alde” herritarren ekimenari buruzkoa. Jabi Arakama Urriaga jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Legearen gainekoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (8. or.).
- Galdera, kultura-intereseko ondasunetara hilean lau egunetan doako bisita publikoak eginen direla bermatzeko planari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (9. or.).
- Galdera, ikerketa industrialeko eta eraikuntzaren robotizazioko zentro bat sortzeari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, osasun-krisiari aurre egiteko eta mugak ixtearen ondorioak aztertzeke Nafarroa-Akitania Berria-Euskadi Euroeskualdeko organoei aurkeztutako ekimenei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, ikasleak onartzeari buruzko foru dekretu berriaren proiektuari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, errepideetako inbertsioa finantzatzeko alternatibei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, ostalaritzaren sektorea salbatzeko talka-plan bat egiteari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, ahalik eta txerto gehien eskuragarri izateko eta horiek lehenbailehen jartzeko Osasun Departamentuaren jarduketei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Mendigorriko ikastetxe publikoan D eredia eskaintzeari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Kanarietako migrazio-krisiari erantzuteko Espainiako Gobernuaren eta autonomia-erkidegoen arteko koordinazioari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariaren egoera penala dela-eta Lehendakaritzako zuzendari nagusiak eginiko idazkiari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, “Testa Residencial” SOCIMIarekiko negoziazioei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Brexitak Nafarroako enpresetan duen eraginari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (15. or.).
- Galdera, zientzia eta teknologiaren arloetan genero-berdintasuna sustatzeko eta aurrera egiteko ekintzak direla-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balantzeari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Next Generation funtsak erakartzeko aurrekontuen eta finantzen kobernanzako, kontrolako eta betearazpeneko mekanismoei buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Espainiako Gobernuaren Mendekotasuna Artatzeko Planari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (17. or.).
- Galdera, ostalaritzarako laguntzei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Europako funtsak lortzeari buruzkoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (18. or.).
- Galdera, EH Bildurekiko ituna eusteri buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, ostalaritzako lokalen barrualdeko apustu-makinak erabiltzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (19. or.).
- Galdera, kutsatzeen kopurua murrizteko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ohiko jarduera bermatzeko ezarriko diren neurriei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (20. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, EmanZipa eta DaVid programei buruzkoa.

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, EmanZipa eta DaVid programei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Urpegui, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikotako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola baloratzen ditu Departamentuak Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboari buruzko Legea 2020ko ekitaldian garatu duten EmanZipa eta DaVid programak?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Galdera, txerto-hornikuntzaren atzerapenak txertaketa-kanpainan izanen duen eraginari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, txerto-hornikuntzaren atzerapenak txertaketa-kanpainan izanen duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Patricia Fanlo Mateo

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Urtarrilaren 15ean, Pfizer/BioNTech konpainiak komunikatu bat igorri zuen, zeinean iragarri baitzuen hurrengo asteetan atzerapena izanen zela Europar Batasunean txerto-hornikuntzan, ekoizpen-ahalmena handitzeko helburua tarteko.

Nolako eragina izanen du txerto-hornikuntzaren atzerapenak Nafarroako txertaketa-kanpainan?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, trafikoaren arloko eskumena osorik Nafarroari transferitzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, trafikoaren arloko eskumena osorik Nafarroari transferitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut trafiko arloko eskumena osorik eskualdatzeari buruz:

- Zertan da eskualdatze-prozesua eta zein da hurrengo mugarrien egutegia?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Radar Covid aplikazioari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, Radar Covid aplikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nola baloratzen duzu Radar Covid aplikazioaren funtzionamendua?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, Nafarroan autokarabana-turismoa bultzatzeari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan autokarabana-turismoa bultzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Garapen Ekonomikorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako autokarabana-turismoa gero eta indar handiagoa hartzen ari den sektorea da, eta, araudi espezifiko bat dagoen arren, eremu horren bilakaera eta garapen-aurreikuspena direla-eta araua sektorearen errealitatera eta premietara egokitu behar da.

Zer egingen du Nafarroako Gobernuak Nafarroan autokarabana-turismoa bultzatzeko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, 1978tik aurrera Nafarroako herritarrek pairatutako torturei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, 1978tik aurrera Nafarroako herritarrek pairatutako torturei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioko bozeramailea, Ganberako araudiak dioenari jarraiki, honako ahozko galdera egin dio Ana Ollo Hualde Herritarrekiko Harremanetako kontseilari andeari, Osoko Bilkuran erantzun dezan.

- Ze neurri hartuko du Nafarroako Gobernuak nafar herritarrek 1978tik aurrera pairatutako torturaren dimentsioa ezagutarazteko eta euren egia, aitortza eta erreparaziorako eskubidea bermatzeko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 20

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroako desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko itunpeko zentroen V. hitzarmenari buruzkoa.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko itunpeko zentroen V. hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2020. urtearen amaieran, patronalaren eta sindikatuen artean aurrekordioa sinatu zen Nafarroako desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko itunpeko zentroen V. hitzarmenari buruz.

Zer ondorio ditu sinadura horrek desgaitasunaren arretarako sisteman, eta, zehazki, zer hobekuntza aurreikusten ditu langileen lan-baldintzetan?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Galdera, “Minority SafePack-miloi bat sinadura Europako dibertsitatearen alde” herritarren ekimenari buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkeztutako galdera, “Minority SafePack-miloi bat sinadura Europako dibertsitatearen alde” herritarren ekimenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urriaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2020ko abenduaren 17an, Europako Parlamentuak “Minority SafePack-miloi bat sinadura Europako dibertsitatearen alde” ekimena onartu zuen, aldeko 524 botorekin, aurkako 67 botorekin eta 103 abstentziorekin.

Ekimen hori kontinente osoko erakunde publiko askok babestu zuten aldez aurretik. Nafarroaren kasuan, Nafarroako Parlamentuak gehiengoz onartu zuen, 2018ko martxoan, ekimen horren aldeko adierazpen instituzional bat. Adierazpen horretan, Europa osoan kultura- eta hizkuntza-aniztasuna sustatzearen alde egiten zuen, bai eta gutxiengoaren eskubideak babestearen alde ere, “Kopenhageko irizpideak” deiturikoei jarraituz.

Europako Parlamentuaren aldeko bozketaren ondoren, Herritarrekiko Harremanetako kontseilari galdetzen diogu Nafarroako Gobernuak zer iritzi duen “Minority SafePack-miloi bat sinadura Europako dibertsitatearen alde” ekimenari buruz.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urriaga

Galdera, Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, 2021eko urtarrilaren 28rako aurreikusita dagoen Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

21/2019 Foru Legearen azken xedapenetatik bigarrena betez, Nafarroako Gobernuak Fundazioei buruzko Foru Lege proiektu bat erregistratu du parlamentu honetan. Proiektu hori izapidetze-prozesuan dago.

Lege-proiektu horrek Fundazioen eta babes-jardueren tributu-araubidea arautzen duen 10/1996 Foru Legearen artikulua batzuk indargabetzea eta aldatzea dakar, zeinak funtsezko aldaketak eraginen baititu fundazio publikoen erregulazioan.

Bestalde, 2/2014 Foru Legeak CAN Fundazioaren printzipioak, funtzionamendua eta organo gidariak arautzen ditu.

Zer eragin izanen du fundazioen erregulazio berri horrek CAN Fundazioaren erregulazioan eta funtzionamenduan, eta zer eredu aurreikusiten du Nafarroako Gobernuak fundazio horretarako?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean.

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Legearen gainekoa.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Legearen gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du,

Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kultura Eskubideei buruzko Foru Legearen xedapen gehigarri bakarrak ezartzen duenez, araudi hori indarrean sartu eta urtebeteko epean, Kultura eta Kirol Departamentuak zerbitzu-kartak onetsiko ditu, eta horietan zehaztuko da zein diren prestazioak departamentu horren eskumen esparruetan, haien kalitatea hobetzeko eta herritarren beharrei, gogoei eta eskaerei hobeki erantzuteko.

2021eko urtarrilaren 21ean, bi urte beteko dira lege hori onetsi zenetik.

Hori dela eta, honako hau galdetzen diogu Kultura eta Kiroleko kontseilariari:

Zein metodologia, eragile eta partaidetzarekin prestatzen ari dira zerbitzu-kartak eta noiz aurkeztuko dira jendaurrean?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Galdera, kultura-intereseko ondasunetara hilean lau egunetan doako bisita publikoak eginen direla bermatzeko planari buruzkoa.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera, kultura-intereseko ondasunetara hilean lau egunetan doako bisita publikoak eginen direla bermatzeko buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kultura Eskubideei buruzko Foru Legearen 10. artikulua ezartzen duenez, kultura-intereseko ondasunen jabe edo edukizailerik diren pertsonak edo erakundeek baimena eman beharko dute hilean gutxienez lau egunetan eta egunetan lau orduz, gutxienez, doako bisita egiteko, aurrez adierazitako egun eta orduetan.

Era berean, lege horren azken xedapenetatik bosgarrenak ezartzen du betebeharrak hori araudi hori NAOan argitaratu eta urtebeterra jarriko dela indarrean, hau da, 2020ko urtarrilaren 25ean.

Hori dela eta, honako hau galdetzen diogu Kultura eta Kiroleko kontseilariari:

Zer plan egin du departamentuak kultura-intereseko ondasunetara hilean lau egunetan doako bisita publikoak eginen direla bermatzeko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Galdera, ikerketa industrialeko eta eraikuntzaren robotizazioko zentro bat sortzeari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, ikerketa industrialeko eta eraikuntzaren robotizazioko zentro bat sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoe-tako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela gutxi, Nafarroako Gobernuak jakinarazi zuen ikerketa industrialeko eta eraikuntzaren robotizazioko zentro bat sortzea bultzatuko zuela, Züricheko Unibertsitate Politeknikoarekin batera, eraikuntza jasangarri eta eskuragarrian aurrera egiteko.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

Zer urrats egin dira orain arte ikastetxea sortzeko, zeintzuk eginen dira etorkizun hurbilean, zein epe ezartzen dira eta zein dira lortu beharreko helburuak?

Iruñean, 2021eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, osasun-krisiari aurre egiteko eta mugak ixtearen ondorioak aztertzeko Nafarroa-Akitania Berria-Euskadi Euroeskualdeko organo- ei aurkeztutako ekimenei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, osasun-krisiari aurre egiteko eta mugak ixtearen ondorioak aztertzeko Nafarroa-Akitania Berria-Euskadi Euroeskualdeko organo-
ei aurkeztutako ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroa-Akitania Berria-Euskadi Euroeskualdea osatzen dugun lurraldeetan, pandemiaren eraginez, era guztietako harreman ekonomiko, sozial eta kulturalak nabarmen aldatu ditugu. Horiei, berriki, muga jakin batzuen itxiera gehitu zaie, zeina terrorismoaren aurkako borrokagatik justifikatu baita.

Horri buruz, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

- Zer ekimen planteatu dizkie Nafarroako Gobernuak Euroeskualdeko organo-
ei osasun-krisiari aurre egiteko eta mugak ixtearen ondorioak aztertzeko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, ikasleak onartzeari buruzko foru dekretu berriaren proiektuari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, ikasleak onartzeari buruzko foru dekretu berriaren proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau egiten dio Osasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Ikasleak onartzeari buruzko foru dekretu berrian, zergatik zentralizatzen dira Hezkuntza Departamentuan ikasleak onartzeko prozesuaren fase guztiak?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, errepideetako inbertsioa finantzatzeko alternatibei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, errepideetako inbertsioa finantzatzeko alternatibei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Chivite andrea, uste al duzu errepideetako inbertsioa finantzatzeko alternatiba bakarra bidesari-sistema bat ezartzeko enpresa publiko bat sortzea dela?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, ostalaritzaren sektorea salbatzeko talka-plan bat egiteari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, ostalaritzaren sektorea salbatzeko talka-plan bat egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak benetako talka-planik planteatuko al du berriki onetsitako murrizketa berriak direla-eta ostalaritzaren sektorea salbatzeko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, ahalik eta txerto gehien eskuragarri izateko eta horiek lehenbailehen jartzeko Osasun Departamentuaren jarduketei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, ahalik eta txerto gehien eskuragarri izateko eta horiek lehenbailehen jartzeko Osasun Departamentuaren jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer jarduketa ari da egiten Osasun Departamentua ahalik eta txerto gehien eskuragarri izateko eta horiek lehenbailehen jartzeko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztutako galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gaur egungo egoeran, uste duzu beharrezkoa dela Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua mantentzea?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Mendigorriko ikastetxe publikoan D eredia eskaintzeari buruzkoa.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako galdera, Mendigorriko ikastetxe publikoan D eredia eskaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Maria Roncesvalles Solana Aranak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontseilari jaunak zehaztu al dezake zeintzuk diren egindako urratsak eta egin beharrekoak, hau da, zein egoeratan dagoen Nafarroako Foru Komunitateko Ikastetxe Publikoen Sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretua aldatzeko espedientea? Aldaketa garaiz eginen al da 21/22 ikasturterako aurrematrikulazio kanpaina D eredia eskaini ahal izateko Mendigorriko Julián M^a Espinal Olcoz ikastetxe publikoan?

Iruñean, 2021eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

Galdera, Kanarietako migrazio-krisiari erantzuteko Espainiako Gobernuaren eta autonomia-erkidegoen arteko koordinazioari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztutako galdera, Kanarietako migrazio-krisiari erantzuteko Espainiako Gobernuaren eta autonomia-erkidegoen arteko koordinazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garridok honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola baloratzen duzu Espainiako Gobernuaren eta autonomia erkidegoen –bereziki Nafarroaren– arteko koordinazioa modu arin eta eraginkorrean erantzuteko Kanariar Uharteetan sorturiko migrazio-krisiari?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariaren egoera penala dela-eta Lehendakaritzako zuzendari nagusiak eginiko idazkiari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariaren egoera penala dela-eta Lehendakaritzako zuzendari nagusiak eginiko idazkiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer argudiotan oinarritzen zara mantentzeko Lehendakaritzako zuzendari nagusiak Ayerdi kontseilariaren egoera penala dela-eta eginiko idazkia “zerbitzu juridikoek” eginiko txosten juridikoa dela, abenduaren 16ko prentsaurrekoan esan zenuen moduan?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, “Testa Residencial” SOCIMIarekiko negoziazioei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, “Testa Residencial” SOCIMIarekiko negoziazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Errege-

lamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikotako kontseilariak urtarrilaren 28ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jakin dugunez, “Testa Residencial” SOCIMIarekiko negoziazioak geldirik daude, eta bloke horietako auzotarrek salatu dute hileko igoerak Departamentuak publikoki iragarritako 60 eurotik gorakoak izanen direla. Hori dela eta, honako galdera egiten diogu Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Departamentuari:

Funtsarekiko negoziazioei berrekinen al zaie errentaren hileko igoera eta kontribuzioa eta komunitate-gastuak bezalako kontzeptu gehigarriak bloke horietan bizi diren familiek ordaindu ahal izateko modukoak izan daitezten?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Brexitak Nafarroako enpresetan duen eraginari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Brexitak Nafarroako enpresetan duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola egingen dio aurre Nafarroako Gobernuak Brexitak Nafarroako enpresetan duen eraginari?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, zientzia eta teknologiaren arloetan genero-berdintasuna sustatzeko eta aurrera egiteko ekintzak direla-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balantzeari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, zientzia eta teknologiaren arloetan genero-berdintasuna sustatzeko eta aurrera egiteko ekintzak direla-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balantzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak 2021eko urtarrilaren 28ko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Zer balantze egiten du Nafarroako Gobernuak zientzia eta teknologiaren arloetan genero-berdintasuna sustatzeko eta aurrera egiteko ekintzak direla-eta?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, Next Generation funtsak erakartzeko aurrekontuen eta finantzen kogobernantzako, kontroleko eta betearazpeneko mekanismoei buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Next Generation funtsak erakartzeko aurrekontuen eta finantzen kogobernantzako, kontroleko eta betearazpeneko mekanismoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gáratek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, 2021eko urtarrilaren 28ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurrekontuen eta finantzen kogobernantzako, kontroleko eta betearazpeneko zer mekanismo jarriko ditu abian Nafarroako Gobernuak Next Generation funtsak erakartzeko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, Espainiako Gobernuaren Mendekotasuna Artatzeko Planari buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuaren Mendekotasuna Artatzeko Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Nuria Medina Santos

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozietako kontseilariak 2021eko urtarrilaren 28ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuak mendekotasuna artatzeko talka-plan bat adostu berri du autonomia-erkidegoekin. Plan horren xedea da Mariano Rajoyk onetsitako 20/2012 Errege Lege-dekretuaren bidez ezarritako murrizketak leheneratzea eta mendekotasunerako arreta ongizate-estatuaren laugarren zutabe gisa finkatzea.

Akordio hori dela eta, hona gure galdera:

Zer eragin du Nafarroan Espainiako Gobernuak adostu berri duen Mendekotasuna Artatzeko Planak?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, ostalaritzarako laguntzei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, ostalaritzarako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Ostalaritzako barrualdeak berriro itxi direnez, eta ostalari txikiak laguntzak eskuratzeko zailtasunei eta laguntza horiek eskatzeko epe laburrei buruz eginiko keak entzun ondoren, hauxe jakin nahi dugu:

Gobernuak ba al du asmorik epeak luzatzeko, ostalari txikiak sektorerara bideratutako laguntzak eskuratu ahal izateko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Europako funtsak lortzeari buruzkoa.

UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Europako funtsak lortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erre-

gelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak heldu den urtarrilaren 28ko Legebiltzarren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Urtarrilaren amaieran gaude eta aurten, bizi dugun krisi larritik ateratzeko, baldintza izanen da Europako funtsak lortzea.

Nafarroako Gobernuko Kanpo Ekintzarako Politikaren arduraduna den aldetik, galdetu nahi zaio Ana Ollo kontseilariari nola ari den lanean Gobernua ahalik eta funts gehien lortze aldera.

Iruñean, 2021ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, EH Bildurekiko ituna eusteri buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, EH Bildurekiko ituna eusteri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Arnaldo Otegi ETAKo presoei bidaliko gutun batean adierazi du "EH Bilduk, bere proiektu politikoa hazteko, beharrezkoa duela ziegen esperientzia eta indarra". Maddalen Iriartek, berriz, honako adierazi du: "ETAk eragindako mina aitortuta dago. Justua izan edo ez errelato bakoitzaren araberakoa da". Adierazpen horien ondotik, eutsi behar al diozu EH Bildurekiko itunari?

Iruñea, 2021eko urtarrilaren 25an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Galdera, ostalaritzako lokalen barrualdeko apustu-makinak erabiltzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ostalaritzako lokalen barrualdeko apustu-makinak erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasuneko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariorde Ramirez jaunak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Barne Zuzendaritza Nagusiaren menpe dagoen Jokoaren eta Ikusizun Publikoen Atalak jakinarazi duenez, gaur egun ostalaritzako lokalen barrualdea itxita badago ere, COVID-19aren aurkako prebentzio-neurri gisa, lokal horietara sartu ahalko da apustu-makinak eta txanpon-makinak erabiltzeko.

Neurri honek harritu egin gaitu, ulertzen baitugu makina horien erabilera ez dela sartzen ostalaritzako lokalen jarduera nagusiaren barruan, eta makinak erabiltzeko aukera "diskretu eta bakarti" horrek, gainerako erabiltzaileen begiradatik urrun, joko konpulsibotik eta ludopatietatik eratorritako problematika areagotzen lagundu baitezake.

Gainera, makina horiek erabiltzerakoan ukipen-pantailak eta makina horiek dituzten botoiak ukitzen dira, bai eta eskudirua ere, eta hori infekzio-fokua eta birusaren transmisiorako bidea izan daiteke.

Jokoaren eta ludopatiaren problematika lehen mailako osasun publikoko arazo bihurtu da eta eragina du, nagusiki, gazteenengan. Horrek kezka handia sortu du herritarren artean, problematika hau gure auzoetan lantzen duten gizarte-mugimenduek eta plataformek erakusten duten moduan. Erakunde publikoek problematika hori aintzat hartu eta zeharka jorratu behar dute beren ekintza eta neurri guztietan.

Nola baloratzen du Nafarroako Gobernuak ostalaritzako lokalen barruan dauden apustu-makinak eta txanpon-makinak erabiltzeko aukera, gaur egun aipatu lokalen barrualdea itxita badago ere, horrek osasun publikorako izan dezakeen ageriko arriskua ikusirik?

Iruñean, 2021eko azaroaren 25ean.

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

Galdera, kutsatzeen kopurua murrizteko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ohiko jarduera bermatzeko ezarriko diren neurriei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, kutsatzeen kopurua murrizteko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ohiko jarduera bermatzeko ezarriko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariari, urtarrilaren 28ko

Osoko Bilkuran, ostegunarekin, ahoz erantzun dezan.

Azken 14 egunetako inzidentzia metatua 100.000 pertsonako 448,8 kasuetara igo da; horren arabera, asteko hazkundera % 30etik gorakoa izan da. Testen positibotasun-tasa % 8tik gorakoa da, eta positibo bakoitzeko eginiko test kopurua 24tik 14,48ra jaitsi da. Ospitaleratutako pertsonen kopurua % 46 hazi da eta ZIUn ingesaturiko gaixoena, berriz, % 54 hazi da.

Proiektzio horiekin, 14 eguneko inzidentzia metatua 100.000 pertsonako 600 kasuetara gerturatuko da, muturreko arriskua alegia, eta gainera Osasunbidearen ohiko jarduera hipotekaturik geratuko da.

Hori dela-eta, parlamentari naizen honek hauxe galdetzen dut:

• Zer neurri ezarriko ditu Nafarroako Gobernuak kutsatzeen kopurua murrizteko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ohiko jarduera bermatzeko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez